



KULTURA ETA OSASUNA

Laburpen exekutiboa



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

LABURPEN EXEKUTIBOA

Aspalditik ari gara kultura eta osasuna lotzearen garrantzia aztertzen eta aitortzen, eta, ildo horretatik ekimen zehatzak bultzatuz, aurreranzko urratsak egiten. Pandemia iritsi izanak eta hark mundu mailan eragin zuen kolpeak arreta mundu osoko osasun-sistemetan eta osasun fisikoa zein psikologikoa babestean jartzea ekarri zuen. Egoera horren kaltebera izanik, ihesbide gisa azaleratu ziren arteak eta kultura, agerian geratu zen pertsonen osasun-egoeran eta ongizatean duten eragina.

Kulturaren eta osasunaren arteko harremana aztertzen duten txosten eta lan gehienek kulturak, prebentzioko zein tratamenduko ekintzen bitartez, pertsonen osasun-egoeran dituen efektu positiboak aztertzen dituzte. Txosten honetan, osasunaren eta kulturaren artean dagoen harremana aztertzearen aldeko apustua ere egiten da, pertsonen osasun-egoerak kultura-jarduna eta kultura-kontsumoa mugatzeko edo baldintzatzeko orduan duen eragina aztertuz. Horrela, bada, txostenaren helburua da kulturaren eta osasunaren artean, oro har, dagoen harremana aztertzea.

Lehenik eta behin, eta eztabaidan aurrera egiteko, garrantzitsua da analisi honen kontzeptu nagusiak zehaztea.

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du **osasuna**: ongizate fisiko, mental eta sozialeko beteko egoera, eta ez bakarrik gaitzik edo gaixotasunik ez izatea.

Kultura zer den zehatzea zailagoa da, ordea, baina txosten honetan estu lotzen zaie honako hauei: arte eszenikoak, ikusmen-arteak, diseinua, artisautza, literatura eta arte digitalak; horrez gain, museoetara, arte-galerietara, erakusketetara, kontzertuetara, antzerkira, ekitaldi komunitarioetara, jaialdietara eta azoketara joatearekin lotutako kultura-kontsumoa ere hartzen da aintzat.

Kulturak osasunean dituen eraginei dagokienez, bi alderdi bereizi behar dira.

1. Lehenik eta behin, kulturak eragina du osasunean, gaixotasunen prebentzian zein tratamenduan. Kultura-jarduerak eta kultura-praktikak eragin positiboak izan ditzake osasunean, batetik, gaixotasun edo osasun-arazo jakin batzuk izateko arriskuaren **prebentzian**, eta, bestetik, osasunaren erasan jakin batzuk hobetzeko **tratamendu osagarri** modura.
2. Bestalde, efektuak ezberdinak izango dira, kultura-jarduera **modu aktiboan praktikatzan den edo modu pasiboagoan kontsumitzen den kontuan hartuz**.

Ildo horretan, azpimarratzekoa da arte-jarduera guztiak ez direla osasun-estrategiak, baizik eta, onura horiek izan ditzaten lortzeko, osasunari dagokion helburu esplizitu batekin pentsatuta eta diseinatuta egon behar dutela.

OMEk eta mundu-mailako beste erakunde batzuek sakonetik aztertu dituzte azkenaldi honetan kulturak osasunean dauzkan eragin onuragarriak, eta, ondorioztatu dutenez, artea lagungarria izan daiteke osasun psikologikoa eta emozionala kudeatu eta oneratzeko zein lesio bat edo gaixotasun bat sendatzeko. Gainera, kultura eta osasuna lotzen duten proiektuak bultzatzeak garapen jasangarriko helburuei erantzuteko balio du, argi eta garbi.


Haurtzaroa babesteko erronka, biztanleriaren zahartzea eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak babestea ere Europa-mailako eremu estrategikoak dira, haien bizi-kalitatea hobetzeko ekintza zehatz batzuen beharrea daudenak. Ildo horretan, oso interesgarria litzateke estrategia integral bat ezartzea, kultura osasunaren kontzientziazioan, sustapenean eta babesean sartu ahal izateko.


Hainbat eremutatik lan egiten ari da egungo osasun-erronkei modu ireki eta globalean heltzeko. Euskadin, adibidez, Osasun Publikoari buruzko legeria berriak aukera ematen du osasunaren hobekuntzan zeharka eta hainbat sektoretatik jarduteko, ikuspegi integral eta berritzaile baten alde eginez, kultura-eremua barne hartzen duten osasun-estrategiak bultzatuz.

Eztabaida argitzeko eta osasuna eta kultura lotzearen garrantzia arrazoitzeko, jarraian grafikoki zehaztuko ditugu, lehenik, kulturak osasunerako dauzkan onurak, eta, bigarrenik, osasunak kulturari dauzkan eraginak.


Kulturak osasunean eragiten dituen ondorioei dagokienez, bi joera bereizten dira.

1. Kulturak gaixotasun, nahasmendu edo osasun-arazo jakin batzuen **prebentzioan zein tratamenduan dituen ondorio positiboak**.





2. Kultura modu pasiboan kontsumitzen denean eta kultura-jarduera bat modu aktiboan egiten denean eragindako ondorioen arteko aldeak.



Kultura modu pasiboagoan kontsumitu zein kultura-jarduerak modu aktiboan praktikatzen, onura gehienak honako hauekin lotzen dira: gogo-aldartearen eta ongizatearen hobetzea, dementzia eta gaixotasun mentalak prebenitzen dituen garapen kognitibo hobe bat, isolamendu soziala, estresa, depresioa eta antsietatea hobetzea, bizi-ohitura osasungarriak hartzea eta bizimodu aktibo bat garatzea.

Osasunak kulturan dauzkan ondorioei dagokienez, nabarmentzekoa da pertsonen osasun-egoera orokorrak baldintzatu egiten duela, hein handi batean, kulturara iristeko izan ditzaketen aukerak. Kulturarako irispideak unibertsala izan behar du, eta, beraz, osasunarekin lotutako baldintzazaile jakin batzuek ez lukete oztopo izan behar. Osasunak kulturaren parte hartzean eta kultura kontsumitzean dituen efektu negatiboak murrizteko, hiru jarduketara-ildo daude:

Irisgarritasuna	Irisgarritasunak kultura-espazioak eta kultura-ekitaldiak fisikoki egokitzea eskatzen du, baldintza berdinetan parte hartu ahal izateko aukera ziurtatzeko.
Egokitzapena	Egokitzapena da ekitaldiak, jarduerak, erakusketak eta abar behar bezala planifikatzea, edukari zein formatuei dagokienez, pertsona guztiek baldintza berdinetan kultura kontsumitu edo kulturaren parte hartu ahal izan dezaten.
Hurbiltasuna	Irisgarritasuna eta egokitzapena nahikoa ez diren kasuetan, baldintza jakin batzuk tarteko kulturarako irisgarritasunik ez duten kolektibo jakin batzuei kultura hurbiltzeko aukera ere badago.

Beharrezkoa da, halaber, kulturaren arloan kontuan hartzea zein diren osasun-arazo jakin batzuk dituzten pertsonen kulturaren parte hartzea eta kultura kontsumitzea zailtzen dituzten oztopoak, besteak beste, arkitektura-oztopoak, zentzumen-oztopoak edo oztopo kognitiboak.

Gero eta agerikoagoa da kulturaren eta osasunaren arteko harremana eta, ondorioz, kultura osasun-arazoak dituzten pertsonengana hurbiltzeko aukera ematen duten ekimenak bultzatzen dira, gaixotasun jakin batzuen prebentzioa eta tratamendua hobetuz. Dagoen ebidentziari esker, gero eta gehiago aztertzen da kultura osasun publikoko plan eta programekin lotzeko aukera, eta, ondorioz, ikusten da organismo publikoek, nazioartekoek batez ere, kultura herritarren osasuna sustatzeko tresna baliagarri gisa txertatzea bultzatzen dutela.

Kulturak eta osasunak elkarrekiko berrelikadura-dinamikak sortzen dituzte, eta, ondorioz, kulturaren arlotik jardun behar da osasun-arazo indibidualak zein kolektiboak prebenitu eta hobetu daitezen, eta osasun-egoerak kulturarako eskubide unibertsala ukatu ez dezan.

Ildo horretan, nazioartean zein estatuan zenbait jardunbide egoki nabarmendu dira, txosten honen bertsio zabalean modu hedatuagoan garatu direnak. Txostenean nabarmendu ditugun ekimenak haien osotasunean aztertuz gero, ikusiko dugu proiektu eta programa gehien jomuga dela pertsonen osasun emozionala eta psikologikoa hobetzea edo prebenitzea, edo irisgarritasun-baldintzak hobetzea, osasun-arazo jakin batzuk dituzten pertsonen gizarteratzea bermatzeko.

Horrenbestez, nazioarteko gaur egungo testuinguruaren norabideak eragin du osasuna nazioarteko eztabaida publikoan lehentasunezko arloa izatea, eta, ondorioz, pertsonen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzen lagun dezaketen interakzioko-arlo estrategikoak sakonagotik aztertzea.

Interakzio-eremu horien artean, kultura-eremua aspalditik erakusten ari da pertsonen osasun-egoerarako mesedegarria dela, baina, garapen hori gorabehera, ikusten da orain arte kultura- eta osasun-alorrean egin diren ekintzak indibidualak direla eta atomizatuta daudela, eta nazio-mailan edo Europan ez dela oraindik baterako apusturik egin kultura eta osasuna lotzen duten programak inplementatzeko.

Txosten honek kulturak osasunerako onurak dituela frogatzen duen ebidentzia laburbiltzen du, baina osasuna ez da kultura-arloaren presentzia duten zeharkako programa eta politiken onuradun den arlo bakarra. Kultura onuragarria da garapen indibidual eta sozialerako, alderdi askotan, eta erronka orain da kulturaren arloan politika irekiak, zeharkakoak eta integratzaileak definitzea; eta, horietatik abiatuta, arlo zehatzetarako berariazko estrategiak garatzea.

